



Arartekoaren 2020S-309-20 ebazpena, 2020ko uztailaren 20koa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari iradoki zaio aldatu ditzala bere Diru-bilketa Erregelamenduaren aurreikuspenak, zaurgarritasun-egoeran dauden familiek Foru Ogasun horrekin pilatzen dituen zorrak modu zatikatuan duintasunez ordaintzeko aukera izan dezaten.

Aurrekariak

1. Kexagileak kexa-idatzi bat sustatu zuen Arartekoaren aurrean. Idatzi horretan adierazi zuen ez zegoela ados Bizkaiko Foru Ogasunak ez ziolako erantzun ordainketa zatikatzea (horrela, bere baliabide ekonomikoetara hobeto egokitzeko) onartzeko egin zuen eskaerari.

Bere erreklamazioan, interesdunak azpimarratu zuen bere egungo egoera ekonomikoa zaila dela baina zorra ordaintzeko borondatea duela. Hala ere, adierazi zuen esleitutako kuotak finkatzeko orduan kontuan hartu behar zirela une hartan zituen zailtasun sozioekonomikoak, ezin baitzuen jarraitu hileko diru-sarreraren % 50 eta % 80 artean zorra ordaintzeko erabiltzen, ordura arte bezala.

2. Kaltetuak adierazi zuen 2017an laneko kalte-ordaina jaso zuela, lan-harremana amaitu zitzaiolako. Aitortu zuen kalte-ordain horren zenbatekoaren jarduera ekonomikoa bat abiatu zuela, arrakastarik gabe. Era berean, adierazi zuen urte bereko amaiera bere alaba adingabearen zaintza egotzi zitzaiola, dibortzio-epai bidez.

Adierazi zuenez, 2018ko uztailan, Bizkaiko Foru Ogasunak likidazio-proposamen bat jakinarazi zion, PFEZ gisa, 2017ko ekitaldiari buruzkoa, eta 21.000 euroko kuota kendu zitzaion. Zergadunak aitortu zuen, erreklamaturako zorra osorik ordaintzerik ez zuenez —une horretan lanaldi erdian lan egiten zuen—, ordainketa zatikatzeko eskatu zuela, eta hileroko 500 euroko kuotetan eman eta ezarri zitzaiola, nahiz eta bere laneko diru-sarrerak hilean 900 eurokoak izan.

3. Era berean, adierazi zuen, 2019ko uztailan, lanaldi erdiko lanetik kaleratu zutela eta ez zuenez beste lanik aurkitu, langabezia-prestazioa eskatu zuen (4 hilabete) eta Foru Ogasun horretara jo zuen atzeratze bat eskatzeko, ordainketaren luzapen bat edo ezarritako kuotaren murrizketa bat. Hala ere, bere eskaera ez zen onartu; hortaz, hasiera batean finkaturiko 500 euroko hileko kuotak bere kontu korrontean kargatzen jarraitu zuten.
4. Adierazi zuen, zailtasunak zailtasun, senideren baten laguntzarekin, eta bere diru-sarrerak Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren zenbatekora iristen ez ziren arren, ordainketa-zatikapenaren kuotei aurre egiten jarraitu zuela, harik eta





2019ko azaroan guztiz ezinezkoa izan zitzaien arte ordaintzen jarraitzea. Baieztatzen zuenez, une horretan, Bizkaiko Foru Ogasuneko Zerga-bilketako Zerbitzuak zatiketaren eraginkortasuna galdu zuela jakinarazi zion, eta ordaintzeke zegoen zor osoa hilabeteko epean ordaintzeko eskatu zion, hau da, 15.978,46 €, Zerga-bilketako Erregelamenduan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz.

5. Adierazi zuenez, jakinarazpen hori jaso ondoren, Ogasunera jo zuen berriro, eta zorra 60 hilabeteko ordainketa-egutegi batean zatitzeko eskatu zuen, betiere etxebizitzaren bermearekin. Eskaera horrek ez zuen berariazko erantzunik jaso kaltetuak Arartekoaren aurrean kexa aurkeztu zuenean.
6. Kexan, interesdunak jakinarazi zuen 2019ko abenduan hasi zela lanean udaletako gizarteratze-programa batean, eta hilean 650 euro irabazten zituela. Era berean, diru-sarreraren iturri bakarrak soldata eta aitak alaba adingabeari ordaintzen zion mantenu-pentsioa (350 euro hilean) zirela adierazi zuen.
7. Bere erantzunean, Zerga-bilketako Zerbitzuak azpimarratu zuen bere jarduna Zerga-bilketako Erregelamenduak zorren ordainketaren zatikapenari buruz ezartzen dituen aurreikuspenetara egokitu zela, eta honako hau adierazi zuen:

“...Adierazi den espedientearen bidezko azterketa egin ondoren, gertatutakoa deskribatzeari ekiten zaio:

Lehenengoa:

2018ko ekainaren 28an interesdunak 2017ko ekitaldiko PFEZaren kuota diferentzialaren kontzeptuari dagokion likidazioaren ordainketaatzeratzeko eskatu zuen.

Eskaera horretan eta hari erantsitako dokumentazio osagarrian, zorra geroratzeko eskatzen zen 36 kuotatan ordaintzeko. Indarrean zegoen legeria betez, 2018ko abuztuaren 22an (2018ko irailaren 3an jakinarazia) geroratzea onartu zen, hain zuzen ere zergadunak eskatu zituen baldintzetan.

Bigarrena:

2018ko abenduaren 10ean gaia berraztertzeko eskatu zuen eta higiezin bat aurkeztu zuen zorra geroratzeko berme moduan.

Adierazi den eskaera horren ondorioz berriz aztertu zen hasieran eman zitzaion geroratzea eta beste geroratze bat onartu zitzaion, kasu honetan 60 kuotako hileroko ordainketekin.





Hirugarrena:

Bi kuota ez ordaintzearen ondorioz (2019ko azaroa eta abendua) eta indarrean dagoen araudia aplikatuz, 2020ko urtarrilaren 4an aurreko geroratzeak eraginkortasuna galdu zuen.

Laugarrena:

2020ko otsailaren 10ean interesdunak berriro eskatu zuen zor beraren ordainketa geroratzea, eta, Administrazio honetan ez dagoenez jasota behinola eskaini zuen bermea formalizatu zenik, hileko 36 kuotako epera geroratzea onartu zitzaion.

Geroago interesdunak dagokion Erregistroan inskribatuta dagoen hipoteka-eskritura aurkeztu zigun eta orduan baja eman genion hileko 36 kuotatan emandako gerorapenari, eta beste gerorapen bat eman genion, kasu honetan hileko 46 kuotatan ordaindu beharrekoa, hau da, eraturako hipotekak bere iraupenagatik ahalbidetzen duen gehienekoa dena; izan ere, iraupen luzeagoa nahi izanez gero hipoteka eskrituraren notario-aldaketa egin beharko litzateke, jarduketa horrek lotuta dituen gastuekin alegia (notarioria eta erregistroa)."

Gogoetak

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 63. artikuluan honako hau ezartzen da: *Borondatezko aldian edo ordainarazpen-aldian dauden zerga-zorrak arauz finkatzen denaren arabera geroratu edo zatikatu ahal izango dira, zergapekoak eskatuta, baldin eta beraren ekonomiaren eta finantzen egoera dela eta ezarritako epeetan ordaindu ezin badu."*

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Erregelamendua onartzen duenak, zehatzago arautzen ditu, 25etik 34ra bitarteko artikuluetan, biak barne, geroratzea edo zatikatzea, salbuespenezko ordainbide gisa, normalean zerga-zorrak oso-osorik ordaindu behar direlako.

Bi arauak ordainketa geroratzea edo zatikatzea baimentzea ahalbidetzen duen oinarritzko baldintza berean eragiten dute, eta "(zordunaren) **egoera ekonomiko-finantzarioak, modu iragankorrean, ordainketa ezarritako epeetan egitea eragozten dio**".

Bizkaiko Foru Aldundiko Zerga-bilketako Zerbitzuak defendatzen du aurreikuspen horietara eta kexagileak eskainitako ordainketa-bermearen iraupenera egokitu dela, eta erakunde horrek ezin du zalantzan jarri. Hala ere, agerian jartzen saiatu





garenez, ordainketaren zatikapenaren erregulazio hori ez da baliagarria izaten ari biztanleriaren sektore zabal batek eskatzen dituen premiei erantzun egokia emateko; izan ere, sektore hori ahultasun ekonomikoko egoeran dago, eta zorren bat du Bizkaiko Foru Ogasunarekin, eta ezin du ordainketa bakarrean ordaindu.

Zatikapenaren egungo erregulazioa zergadunek likideziaz gabeko egoera koiantural edo iragankorretan zorrak ordaintzeko aukera izan dezaten pentsatuta dago. Hala ere, unean uneko edo aldi baterako likidezia falta horrekin batera, ahultasun ekonomiko estrukturalagoko beste errealitate bat ere badago, biztanleriaren beste sektore bati eragiten diona, higiezin burbuilaren ondoriozko krisiaren ondorio lazgarriak biziki pairatu dituena, eta, gaur egun, aurrera egiteko baliabide ekonomiko apalak dituzte, baita familia-etxebizitza ere, eta Foru Ogasun horrekin metatutako zorrari ere aurre egin behar diote.

Zergadun zaugarriago horiek ordainketaren zatikapenaren behar handiagoa dute, foru-ogasun horrekin dituzten zorrak ordaindu ahal izateko.

Egiturazko ekonomia-estutasun egoera eta, horrenbestez, zailtasunak dituzte zergadun askori eragiten dizkieten zerga-zorrak ordaindu ahal izateko. Izan ere, ordaintzeko betebeharrak existitu existitzen dira, orain arte diru-bilketari buruzko araudian jaso ez diren arren. Hortaz, erakunde honen ustez, saihestezina da diru-bilketako prozedurak arautzen dituen araudi-esparrua gainditzea eta malgutzea, herritarren behar horiei erantzun zentzudun bat emate aldera.

Eragindako familiak —Bizkaiko Lurralde Historikoko beste batzuek bezala— zor bat du ordaintzeke, covid-19ak eta haren egoera sozioekonomiko delikatuak eragindako krisiaren aurreko egoera bati lotuta, baina prest dago zorra pixkanaka eta modu egituratuan ordaintzeko, Foru Ogasun horrekin adostutako ordainketa-egutegi baten arabera, bere premia larrienei arreta ematea arriskuan jarri gabe. Horrek zergadun horiek bermeak aurkeztetik salbustea eta ordainketa-egutegiak ahalik eta gehien zabaltzea eskatzen du.

Familia honen kasu zehatzean, bere aurretiazko jardunak agerian uzten du zorra ordaintzeko benetako borondatea duela; izan ere, nahiz eta batzuetan kuota zatikatuaren ordainketak bere baliabide ekonomiko apalen erdia baino gehiago ordaintzera behartu duen, ez du ordainketa baztertu, eta ordaintzeke dagoen zor hori ordaintzea lehenetsi du beste behar batzuk asetzearen aurretik.

2. Adierazi beharra dago zorra ez ordaintzea ez dela irtenbide bat; izan ere, ez du kontuan hartu zorra betearazpen-bidean kobratzeko fasean dagoela. Beraz, zorraren zenbatekoa handitzen ari da gainordainekin, interesekin eta kostuekin.





Era berean, ordain daitekeen zenbateko baten balizko ordainketa espontaneoak ez luke ekidingo zorraren printzipalak diru-bilketako prozeduraren errekarguak, interesak eta kostuak sortzen jarraitzea; beraz, kopuru txiki horiek ez lukete balioko benetan hartutako zorraren zenbatekoa murrizteko, ezta igoera neutralizatu ahal izateko ere.

3. Egoera zail horien aurrean, kasu batzuetan, Prozedura Zibilaren Legeak (PZL) ezartzen dituen aurreikuspenak har litezke erreferentziatzat, eta ordainketa-egutegiak adostu ahalko lirateke, betiere, zenbatekoak ez baditu gainditzen arau horren 607.2 artikulua LGS baino errenta handiagoko lehen tarterako; izan ere, zenbateko hori, ondasunak enbargatuz gero, foru-ogasun horrek hilean ekar lezakeen gehieneko zenbatekoa izango litzateke.

Artikulu horrek honela dio:

“2. Lanbidearteko gutxieneko alokairua gainditzen duten alokairu, soldata, egunsari, ordainsari edo pentsioak honako eskala honen arabera enbargatuko dira:

1.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua gainditu eta hori bikoiztu arteko zenbatekoari dagokionez, 100eko 30 enbargatuko da.

2.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua hirukoizten duen zenbatekoari dagokionez, 100eko 50.

3.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua lauukoizten duen zenbatekoari dagokionez, 100eko 60.

4.) Lanbidearteko gutxieneko alokairua baino bost aldiz handiagoa den zenbatekoari dagokionez, 100eko 75.

5.) Aurreko muntatik gora, 100eko 90.

Hala ere, artikulu horrek 4. zenbakian hau gaineratzen du: *“Alderdi exekutatuak dituen familia-zamak aintzat hartuz, idazkari judizialak 100eko 10etik 100eko 15a arteko beherapena egin dezake artikulu honen 2. paragrafoko 1, 2, 3 eta 4. zenbakiek ezarri ehunekoetan.* Esan bezala, familia honetan hiru seme-alaba adingabe daude.

Prozedura Zibilaren Legeria zordunak bere betebeharrak ordaintzeko asmoz eman da, baina horren baliabideak suntsitu gabe. Prozedura Zibilaren Legean soldata eta antzeko beste errenta batzuk bahitzeko mugak ezarri dira, legegileak erabaki duelako zordun guztiei bermatu behar zaiela bizitzeko gutxienekoa dutela ohiko beharrak asetzeko.





Gutxieneko hori edukirik gabe geratuko litzateke araurik zorrotzenak egikarituko balira. Hau da, Prozedura Zibilaren Legeak -zeinaren printzipioak bete behar dituzten zerga-administrazioek ezartzen dituzten enbargoek- nahi du nahitaezko betearazpenak ez suntsitzea guztiz zordunaren bizitza ekonomikoa eta ez jartzea arriskuan bere eta bere familiaren biziraupena.

4. Arartekoa jakitun da diru-bilketaren funtzioak betetzeak zailtasun bereziak dituela une hauetan, zergadun askok egoera ekonomiko oso zailei aurre egin behar izaten baitiete. Egoera horiek, hain zuzen ere, aurreko higiezinaren krisiaren ondorio dira, eta, gainera, une historiko honetan, beste faktore distortsionatzaile bat dago, gaur egun ezagutzen ez diren benetako ondorioak dituen, hala nola, osasun-krisiaren ondorioz bizi dugun krisi ekonomiko sakona koronabirusaren pandemiak eragindakoa. Dena den, diru-bilketari buruzko araudiak ez luke alde batera utzi behar egiturazko zaugarritasun ekonomikoaren errealitate bat dagoela, Bizkaiko etxe askotan bizi dena, eta etxe horiek, Bizkaiko Foru Ogasunaren laguntzarik gabe, ezin izango dutela aurrera egin egungo egoera sozioekonomikoan; aitzitik, zoritxarrez, prekarietate ekonomiko handiagoko eta gizarte-bazterketako egoeretan sartuko dira.
5. Diru-bilketa Araudia da foru ogasun horrek bere buruari ezarri dion araua diru-bilketaren kudeaketa otpimizatzeko. Hortaz, foru ogasun horrek arau hori malgutu dezake eta zaugarritasun handiagoko errealitate horretara egokitu. Izan ere Bizkaian familia asko ari dira egoera hori bizitzen.

Ararteko honek, objektiboki, uste du, gaur egun, familia kexagileak ezin duela zorra ordaindu epeetan ordaintzeko aukera ematen ez bazaio, dituzten baliabideetara benetan egokitzen den ordainketen egutegi batekin.

Egoera zailtan familia-ekonomia xumeek nekez egingo diote aurre denboran zehar ordainketak egiteko egutegiari, euren eta seme-alaben bizimodua ateratzeko baliabideen zati oso handia horretarako bideratu behar baldin badute, nahiz eta hartutako zorra ordaintzeko borondate sendoa izan.

6. Administrazio publikoek neurriak hartu beharko lituzkete zerga-prozedurek ez dezaten larriagotu pertsona batzuek bizi duten egoera ekonomiko larria, eta, beraz, ez daitezten joan pertsonen prekarietate eta gizarte-bazterketa handiagoko egoeretarantz.

Ararteko honek uste du itzuli beharreko zorra zatitzearen ondoriozko zenbatekoa elementu objektiboek zehaztu behar dutela, bizikidetzaren unitateari bizi-minimo bat bermatzeko helburua bermatzeko. Zaugarritasun-egoeran dauden eta oinarritzko premiei aurre egin ezin izateko arrisku handia duten familien hileko diru-sarreraren kopuru handia erreklamatzeko duen zorraren ordainketa zatikatzeak tratamendu





objektibo eta proportzionala behar du, haien gizarte-zailtasuneko egoera larriagotu ez dadin. Are gehiago familia-nukleotan adingabeak bizi badira.

Arartekoak askotan gogorarazi du botere publikoek kontuan hartu behar dutela adingabearen interes gorena, Espainiako ordenamendu juridikoaren parte den [Haurren eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko hitzarmena](#) harpidetzaren eta berrespenaren ondoriozko betebeharrak juridiko bati erantzuteko, Espainiako Konstituzioaren 96.1 artikulua aplikatuz: *“Nazio arteko tratuak balioz eginak, Espainian ofizialki argitaratuz gero, barne ordenamenduaren parte izango dira. Haien erabakiak bakar-bakarrik derogatu, aldatu edo baztertu ahal dira itun hauen arabera edo nazioarteko Zuzenbide arau orokorren arabera.”*

Adingabearen interes gorena administrazio publikoen erabakietan kontuan hartu behar den lege-agindua da eta harturiko erabakiaren arrazoia zehaztu beharko litzateke, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren —haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak ematen dion idazketa berrian— 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

7. Zerga-administrazio horrek kontuan hartu behar du zergaren eremuarekin eta horren terminologiarekin ohituta dagoen pertsona batentzat, hasiera batean, ulertterazak diren prozedurak, oro har, herritarrentzat ulertzeko zailak direla. Hori dela-eta, zaila egiten zaie administrazio-jarduketara horien benetako ondorioak ezagutzea; aurkeztea, hasiera batetik, dagozkien eskaerak eta errekurtsioak behar bezala arrazoituta eta beharrezkoa den dokumentazioarekin.

Era berean, jakinarazpen estandarizatuak bidaltzean, ahaztu egiten da herritar zergadun gehienak ez direla teknikari juridikoak, ezta zerga araudia eta horren eraginak ezagutzen eta ulertzen dituzten adituak ere.

8. Azkenik, azpimarratu behar da erakunde honen asmoa ez dela familia horrentzako tratamendu pribilegiatua izatea, baizik eta egoera ahulean dauden pertsonak eta familiek Bizkaiko Foru Ogasunarekin metatuta dituzten zorrei aurre egin ahal izatea, gizarte-bazterketako arriskua larriagotu gabe eta bizirauteko arriskuan jarri gabe. Hau da, eskaintzen zaien zatikapen-akordioak zorrak ordaintzeko aukera erreala jaso ahal izatea, horrek Foru Ogasunarekin betiko zorpetze-egoera batera eraman gabe, denbora igaro ahal pilatutako zorra handiagoa baita, ezinezkoa denean objektiboki egutegi horri aurre egitea. Izan ere, batzuetan, zorra ordaintzeko erabili behar dituzte bere eta bere seme-alaben oinarrizko beharrak asetzeko behar dituzten zenbatekoak.





Horregatik guztiagatik, iradokizun hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailari iradokitzen zaio aldatu ditzala bere Diru-bilketa Erregelamenduaren testua, zaurgarritasun-egoeran dauden familiek Foru Ogasun horrekin pilatzen dituen zorrak modu zatikatuan duintasunez ordaintzeko aukera izan dezaten.
2. Gainera, komenigarria litzateke Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailak, zatikapenak baimentzean, kasuaren zirkunstantziak neurtzea, kudeaketa publikoan aplikatu beharreko eraginkortasun printzipioa kontuan hartuta. Printzipio hori aplikatzeak zordundutako zenbatekoak itzultzearen alde egiten du, pertsonari betebeharrak betetzea galaraziko dion gizarte bazterketarako prozesua larriagotzea ekarri gabe eta familiek dituzten betebeharrak betetzea eta oinarrizko beharrak asetzea eragotzi gabe.
3. Ukitutako familiaren ahultasun egoerak oso zail egiten du zorraren ordainketari aurre egin ahal izatea, ez bada bere oraingo egoera ekonomikoarekin bateragarria den pilatutako zorraren ordainketa zatikatuz. Ezin dugu ahaztu zorraren zenbatekoa etengabe areagotzen ari dela premiamenduzko prozeduraren gainordain, kostu eta interesen ondorioz.

